



PLAZAN buletina ELKANO 500

5. zenbakia

[Primus circumdedisti me](#) [2](#)

Asunción Martínez Arbelaiz

[Elkano, gertatzen ari da](#) [3](#)

Juan M.^a Apaolaza Estensoro

[Biblioteka txokoa](#) [5](#)

www.ehu.eus/gipuzkoa



Primus circumdedisti me

Txikitan gure aitarekin egiten genituen irteerarik kuttunetarik bat Donostiako Aquariumerako bisita zen. Aquariumak gordetzen zituen bilduma harrigarri eta liluragarri horiek itsasoarekin zerikusia zuten. Guretzat itsasoa aita hilabete luzez bizi izaten zen lekua eta banantzen gintuen arrazoa zen. Aita Pysbeko kapitaina zen baina garai hartan guk ez genuen horrek zer esan nahi zuen ondo ulertzen. Aldi-aldian Pasaiara ontziratzen laguntzen genuen eta handik hilabete batzuetara pozik itzultzen zen, barre-algaren artean gurekin jostailu-dendara bisitaren bat egiteko prest.

Baina Aquariumerako bisitak guretzat hain bitxia zen mundu horretara hurbiltzen gintuen, itsasoaren mundura. Aita Groenlandiara, Norvegiara edo Ternuara joaten zelako bou itsasontzietan, beti bakailao eskolen bila. Ez baitzituzten bat edo bi arrantzatzen, ontziaren sotoan gatzatu eta pilatzen zituzten bakailao tonak baizik. Terra eta Nova edo Aguamia ibaia, Abra de Bilbao, Dobra ibaia, etab., aitek idatzita utzitako ontziko egunkarietan itsasontzien izen batzuk dira. Itsasontzi horietan aitek bizi izan zuen errealitate gogorra agerian geratzen zitzaigun Aquariumera egindako bisitetan.

Itsasontzien maketak, Kantauri itsasoan harrapatutako azken balearen hezurdura eta maskor-bildumek sarrerako solairuan zuten bere lekua. Lehen solairura igotzean, nabigazioari eskainitako gela bat zegoen eta han zegoen jostailu didaktiko interaktiborik onena gogoan dut: izugarri handia iruditzen zitzaigun munduko bola, aurrean kontrol edo oinarritzko mandoa zuela. Haurrak ilaran jartzen ginen kontrola hartzeko eta han bidaia ospetsu bat aukeratzen genuen. Gogoan dut Kolonek egindako hiru bidaien artean aukera genezakeela. Elkanoren bidaia ere hor zegoen, eta ziur aski gogoratzen ez ditudan itsas bidaia gehiago egongo ziren. Horietako bat aukeratzean, globoaren zati bat kolorez argizatzen zen irudimenarekin nabigatzen zuen umearen aurpegi alaiaren aurrean. Jakina, guk Elkanoren bidaia aukeratzen genuen, mundu osoa kolore argiz pizten zuena zelako.

Horrela ikasi nuen mundu bira osatu zuen lehen nabigatzailea Juan Sebastián Elcano izan zela eta, nire nahasmenerako, ez nuen Magallanesen edo Magalhaesen izena oso berandu arte entzun. Brossard-en *Historia marítima del mundo* liburuan, horrela deskribatzen da tripulazioa: «hirurehun eta laurogei gizon, gehienbat espainolak (horiekin berrogeita hamazazpi portugaldar, hogeita zazpi genoar edo veneziar, bederatzi normandiar eta frantses euskaldun, bost flandriar, alemaniar, ingeles bat, beltzak eta arabiar» (394. or.). Aitek utzitako Itsasoko Entziklopediaren arabera, berriz 239 gizon zeuden izena emanda, bost itsasontzietan banatuta. (30. or.). Zenbakia edozein dela ere, egia esan tripulazioa jatorri askotarikoa zen.

Beti galdetu izan diot neure buruari nolakoa izango zen XVI. mendean itsasoak zeharkatzen zituzten itsasontzi horietan eta antzekoetan erabiltzen zen komunikazio-kodea. Segur aski, lingua franca horren oinarria gaztelaniaren eta galego-portugesaren ezaugarri sintaktiko eta morfologikoak dituen aldaera erromaniko bat izango litzateke, jatorri ezberdineko nabigazio-lexiko zehatza zuena. Ahaztu gabe, bidaia honen xehetasunei buruz heldu zaigun informazio gehien italiarren aldaeraz idatzitako egunkari batetik datorrela, «Il primo viaggio intorno al mondo» izenez ezagutzen den eskuizkribu batetik. Badirudi azken momentuan, Vicenzako jaun bat Lombardo izenarekin ontziratu zela, gaur egungo Veneto delakoan, Leon X. Aita Santuak gomendatuta. Lombardo hau Antonio Pigafetta zen, ondoren bidaiaren berri emango zuena.

Bere izena, beste hamazazpi izenekin batera, Getariako Elkanoren monumentuan dago grabatuta, zerrendan azkena (1. irud.) 1519an ontziratu zirenetatik, gehiengoa hil zen, beste hamahiru Cabo Verden preso atxiki zituzten eta geroago itzuli ziren. Baina bidaiaren geratu zirenen artean, nabarmentzekoa da Gonzalo de Vigo, Molukasetan bizi izan zena eta bertako hizkuntza desberdinak ikasi zituen, Malaysiera barne. Horrelako pertsonak erabakigarriak izan ziren bertako biztanleekin harremanak gauzatzeko, nagusiki harreman komertzialak, baina ez soilik. Bere historia eta bitartekari gisa izan zituen funtzioak ezagutzen ditugu Andrés de Urdanetaren egunkariaren bidez. Egunkari honen arabera, ordizarrak ere gaur egungo Filipinetako hainbat hizkuntza ikasi eta trebeziaz erabiltzeko gauza zen. Itsasontzien komunikazioan Malukasetako hizkuntzen ezaugarriak imajinatzeko, ziur aski Elkanoren bigarren eta azken bidaiaren zain egon beharko genuke. Bidaia horretan Urdaneta, hamazazpi urte besterik ez zituela, Santi Spiritus izeneko itsasontzian ontziratu zen Elkanorekin batera. Baina hori Donostiako Aquariumeko globoan agertzen ez zen beste bidaia askoz luzeagoa izan zen eta baita beste nabigazio istorio zoragarria ere.



1519-08-10 / 1522-09-06	
ELKANOREKIN LURRARI LEHEN PIRA	
EMAN ZIOTEN ITSAS-GIZONAK	
JUAN SEBASTIAN ELKANO	GETARIA
FRANCISCO ALBO	AXIO
MIGUEL DE RODAS	RODAS
JUAN DE ACURIO	BERMEO
MARTIN DE JUDICIBUS	SAONA
HERNANDO DE BUSTAMANTE	MERIDA
HANSE	AGAN
DIEGO GALLEGO	BAYONA
NICOLAO DE NAPOLES	NAPOLI DE ROMANIA
MIGUEL SANCHEZ DE RODAS	RODAS
FRANCISCO RODRIGUEZ	SEVILLA
JUAN RODRIGUEZ	HUELVA
ANTON HERNANDEZ COLMENERO	HUELVA
JUAN DE ARRATIA	BILBAO
JUAN DE SANTANDER	CUETO
VASCO GOMEZ GALLEGO	BAYONA
JUAN DE CUBILETA	BARACALDO
ANTONIO LOMBARDO	VICENZA

Fig. 1: Getariako

Erreferentziak

De Brossard, Maurice (1976). *Historia Marítima del Mundo*. Barcelona: Amaika S.A. Martínez Hidalgo y Terán, José M. (1957). *Enciclopedia General del Mar*. Madrid: Ediciones Garriga.

■ Asunción Martínez Arbelaiz
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakaslea

Elkano, gertatzen ari da

Elkano aipatzean balore batzuetaz ari gara: aurkikuntza berrien grina, indarra eta kementa, eta itsasketako teknologia berrien ezagutza. Gaur egungo proiektu batek arrakasta izateko beharko lituzkeen ezaugarriak guztiak.

Duela 500 urte Elkanoren mundu-bira helburu komertzialak eragindakoa izan zela aitortu arren, irudimena izan zen bidaia hori arrazoitzeke oinarria. Irudimenak teknika, logistika, finantziarioa edo diziplinaren garrantzia izan zuen.

Elkanoren mundu-birak ordura arteko muga guztiak apurtu zituen: geografikoak, gizatasunezkoak eta jainkozkoak.

Lan honek Elkanori begiratzen dio jakin minaren garra itzaltzen ez uzteagatik, eta horrela, denontzat bide berriak irekitzeagatik. Horretarako unibertsitatean formatzen diren itsas gizon emakumeak ekarri ditugu hona, eta eskerrak eman nahi dizkiet horretara prestatu direlako.

Salttillo da UPV/EHUko eskola-itsasontzia, eta Itsasketako Gradua egiten duten ikasleek bertan egiten dituzte praktikak. Urtero 60 lagunek dute aukera itsasoan murgiltzeko, betirako izango duten esperientzia ontzi barruan dute zain.

Lan hau erakusketa batean loratuko da irail aldera, UPV/EHUko erakustaretoan ikusgai izango da.

■ Juan M.^a Apaolaza Estensoro
UPV/EHUko Itzulpengintza Akademikorako teknikaria

Begirada

Itsasoko lana itxaroten ikastea da, egin beharrekoa noiz egin begiratu behar da, eta ondo begiratzen irakasten duenak dena begiratzen du.



Neska zutik

Mendi artean sortzeak beste aldean zer dagoen jakin nahi izatera bultzatzen du; Elkano getariarrak dena ikusi arte aurrera egin zuen.



Lotu eta askatu

Batzuetan lotu eta besteetan askatu, haizearekin beti tratuan, berak nahi duena eta itsasontziari komeni zaiona oihalekin bideratuz, beti goaz aurrera.




Itsasoa babes

Itsasoa tokia da, baina bertan sustraitzeko aurrera edo atzera egin behar da irentsia ez izateko. Bere zabaltasunak ihes doana besarkatzen du.



Biblioteka Txokoa



«2022ko irailaren 6a. Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman ziola 500 urte betetzen diren eguna. Ospakizun handia antolatu da bere jaioterrian, Getarian. Inoizko Lehorreratze jai bereziena izango da. Baina hilketa mehatxu batek hankaz gora jarri du festa atariko lasaitasuna. Ordulariaren tik-tak hotsak segundo bat aletzen duen bakoitzean, atentatua hurbilago dago. 72 orduko erlojuaren aurkako bilaketa batean murgilduko da Ertzaintza. Baita Aitor Letamendia detektibe pribatua, eta Idoia Urdaneta udaletxeko zinegotzia ere».

Kepa Iribar Euskadi Irratiko kirol esataria da, eta baita UPV/EHUko ikasle ohia ere. Elkanoren mundu biraren 500. urtemuga testuinguru hartuta eleberri beltza kaleratu berri du, eta aproposa iruditu zaigu aipamena egitea Bibliotekako txoko honetan.

Bide batez, Iribarren eleberria abiapuntu hartuta, hark iradokitako beste liburu eta material batzuk ikusarazi nahiko genituzke.

Izenburuari erreparatuz, Montxo Armendarizen «27 ordu» pelikula etorri zaigu burura (zenbakiak alderantziz jarrita).

Kokalekuak (Getariako portua) gauza ugari iradokitzen dizkigu: kostaldeko herria, itsasoa, portua... Kasu honetan, bi liburu aipatuko ditugu. Bata euskal tradizioei buruzko «Tradizioak» liburua; eta bestea Hokusai margolari japoniarraren olatu famatua (Kanagawako olatu handia) agertzen den liburu bat.

Azkenik, hilketa bat aipatzen denez gero, ezin aipatu gabe utzi hiltzailearen profil psikologikoari buruzko bi liburu.

A, eta, nola ez, Kepa Iribarren liburua ere eskuragai duzue liburutegian. Gozatu irakurketa!

Kepa Iribar es locutor de deportes de Euskadi Irratia, y también ex alumno de la UPV/EHU. Acaba de publicar una novela negra con el 500 aniversario de la vuelta al mundo de Elcano de trasfondo, y hemos creído oportuno hacer una mención en este rincón de la Biblioteca.

A partir de la novela de Iribar, nos gustaría visibilizar otros libros y materiales sugeridos por este.

Atendiendo al título, nos ha venido a la mente la película «27 horas» de Montxo Armendáriz (con los números al revés).

El emplazamiento (puerto de Getaria) nos sugiere muchas cosas: pueblos de la costa, el mar, el puerto... En esta ocasión, mencionaremos un libro sobre tradiciones vascas titulado «Tradiciones» y otro sobre la famosa ola del pintor japonés Hokusai (La gran ola de Kanagawa).

Por último, dado que se habla de un asesinato, no podemos dejar de mencionar dos libros sobre el perfil psicológico del asesino.

Ah y, cómo no, también podéis encontrar en la biblioteca el libro de Kepa Iribar. ¡Disfruten de la lectura!

Gomendatutako materiala / Material recomendado



- Iribar, K. (2022). *72 Ordu. Erein*.
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1327520152>




- Armendáriz, M. (Zuzendaria/Director). (2015). *27 Horas = 27 Ordu*. [Filma/Película]
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/957763307>




- Zulaika, J. (2012). *Tradizioak = Tradiciones = Traditions*. Etxepare Euskal Institutua.
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055452079>



- Calza, G. C. (2003). *Hokusai*. Phaidon.
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/645003278>



- Garrido Genovés, V. (2012). *Perfiles criminales : un recorrido por el lado oscuro del ser humano*. Ariel.
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1025565679>



- San Juan Guillén, C. eta/y Vozmediano Sanz, L. (2018). *Psicología criminal. Síntesis*.
<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1084534804>

Kriminologiari buruzko informazio gehiagorako / Para más información sobre criminología:

- Instituto Vasco de Criminología / Kriminologia Euskal Institutua (IVAC/KREI)
 - Publicaciones / Argitalpenak
- Revista Eguzkillore / Eguzkillore aldizkaria (IVAC/KREI)
- Fondo Antonio Beristain / Antonio Beristain Funtsa
- Fondo IVAC (Criminología) / KREI (Kriminologia) funtsa



@EHUkultura

